



ASTEASUKO UDALA
(GIPUZKOA)

2020ko IRAILAREN 29an EGINIKO OHIKO BILKURAREN AKTA

Asteasuko Udaletxeko Pleno Aretoan, 2020ko irailaren 29an, arratsaldeko 20.05etan, Maria Pilar Legarra Cortajarena Alkate anderearen Lehendakaritzapean, behean aipatzen diren Zinegotziak bildu ziren:

ALKATEA: Maria Pilar LEGARRA CORTAJARENA (Asteasu Batuz, AB)

ZINEGOTZIAK: Jose Ramon AYERZA SARASUA (Asteasu Batuz, AB)
Larraitz ALKORTA AIZPURUA (Asteasu Batuz, AB)
Joseba TXAPARTEGI NIEVE (Asteasu Batuz, AB)
Maria Pilar ITURBE URDANGARIN (Asteasu Batuz, AB)
Unai OTEGUI IRAZUSTA (Asteasu Batuz, AB)
Joseba GOMEZ SARASUA (EAJ/PNV)

Ezin direla etorri aurretik adierazi dute: Aitor USANDIZAGA IZAGIRRE (Asteasu Batuz, AB), Luke URIBE-ETXEBARRIA APALATEGUI (EAJ/PNV)

IDAZKARIA: Jon Gil Beltza.

Alkate andreak, goian adierazitako orduan, irekitzat ematen du Udal Osoko Bilkura:

GAI ZERREDA:

1. Aurreko Udalbatzarren aktak onartzea:

- 2020.05.19ko Udalbatzarraren akta.
- 2020.06.13ko Udalbatzarraren akta.
- 2020.07.28ko Udalbatzarraren akta.

2. Azkeneko ohiko Udalbatzarretik igorritako Alkatetza ebazpenen berri eman:

- 2020.urtekoak (095-189)

3. Hondakin organikoaren kudeaketa eta bilketa sistema aldatzea: onespena.

4. 2020 Aurrekontu Orokorren 4. Kreditu Aldaketa (gehigarria): hasierako onespena.

5. 2017ko Kontu Orokorra onartzea

6. 2018ko Kontu Orokorra onartzea

7. Udaleko brigadako kamioneta zaharra SAHARA ELKARTEARI lagatzea: onespena

8. Erregu eta galderak.

.../...

LEHENENGO PUNTUA

Aurreko Udalbatzarren aktak onartzea:

- **2020.05.19ko Udalbatzarraren akta.**
- **2020.06.13ko Udalbatzarraren akta.**
- **2020.07.28ko Udalbatzarraren akta.**

Proposamena bozketara jarri da, ondorengo emaitza eman delarik:

Aldeko botuak: 7 (Legarra, Ayerza, Alkorta, Txapartegi, Iturbe, Otegui, Gómez)

Kontrako botuak: 0

Abstentzioak: 0

Beraz, bozketaren emaitza ikusirik Udalbatzak, bertaratutako zinegotzien ahobatezko onespenearekin, aipatu aktak onartu ditu.

BIGARREN PUNTUA

Azkeneko ohiko Udalbatzarretik igorritako Alkatetza ebazpenen berri eman:

- **2020.urtekoak (095-189)**

Udalbatzarra jakinaren gainean geratu da.



ASTEASUKO UDALA
(GIPUZKOA)

HIRUGARREN PUNTUA

Hondakin organikoaren kudeaketa eta bilketa sistema aldatzea: onespena.

Asteasuko Udalak 2018ko maiatzean zehar partaidetza egitasmo bat gauzatu zuen hondakinen bilketa sistemari buruzko iritzia ezagutu eta orduko arazoei irtenbide bat aurkitu nahian. Eta ondoren, 2019an, partaidetza prozesu horretan azaleratutako ondorioak kontuan izanik, zenbait aldaketa gauzatu ziren Asteasuko hondakinen bilketa sisteman.

Besteak beste, eta beti ere hondakinak hobeto bereizteko helburuarekin, hondakin organikoaren bilketarako sarraila elektronikoa duten edukiontzi marroiak jarri ziren froga moduan Kale Berrian eta Ibarrazpi Pasealekuan. Eta geroztik herriko puntu gehiagotan hondakin organikoarentzako edukiontzi marroiak jartzeko eskaerak ugariak izan dira herritarren aldetik.

Horregatik, herriko puntu gehiagotan hondakin organikoarentzako edukiontzi gehiago jarri eta konpostgune batzuk kentzea proposatu zen 2020ko uztailaren 7ko Ingurumenaren Kontserbazioa, Sostengarritasun eta Mugikortasun Batzordean.

Zehazki ondorengoak proposatu zen:

- Hondakin organikoarentzako edukiontziak gehitzea jarraian aipatzen diren puntuetan: Obaba, Lamiategi, Soro Txiki eta Elizmendi.
- Hondakin organikoarentzako konpostguneak mantentzea jarraian aipatzen diren puntuetan: Kale Berria eta Ibarrazpi Pasealekua.

Eta beraz, Industrieguneko, Lamiateko, Kiroldegiko, Elizmendiko eta Soro Txikiko konpostguneak kentzea.

Aldaketa honek gaur egun Asteasuko Udalak UTE TOLOSALDEAri (hondakinen bilketa zerbitzuaz arduratzen den enpresari) Tolosaldeko Mankomunitatearen bidez egiten dion ekarpena handitzea suposatuko du.

Momentu honetan, 2020an, Asteasuko Udalak UTE TOLOSALDEAri 11.897,85 euroko ekarpena (BEZ barne) egiten dio hondakin organikoarentzako bi edukiontzi, Kale Berrikoa eta Ibarrazpi Pasealekukoa, biltzeagatik.

Proposatzen den aldaketaren bidez, bi edukiontzi biltzetik sei edukiontzi biltzera pasako litzateke, eta horrek, urteko ekarpena 5.158,83 euro (BEZ barne) igotzea ekarriko luke.

Asteasuko Udala hondakin organikoaren bilketagatik 2020an 11.897,85 euro ordaintzetik, 2021ean 17.056,68 euro ordaintzera pasako litzateke.

Kontuan izan behar da diru kantitate hauetan hondakin organikoaren tratamendua ez dela sartzen. GHK-k tratatutako hondakin organikoaren tona bakoitzeko 127,24 euro kobratzen ditu.

Tolosako Mankomunitatearen helburua ondorengo hilabeteetan herri bakoitzak sortzen duen hondakin organikoa pisatu, eta horrela, herri bakoitzak sortzen duen hondakin organikoaren tratamendua ordaintzea da. Horretarako sistema informatikoa egokitzen ari dira Mankomunitatea.

Hala ere, Tolosaldeko Mankomunitateak argitaratutako datuen arabera 2019an Tolosaldean 77,95 kg biohondakin edo hondakin organiko sortu ziren biztanleko, eta horrek esan nahi du Asteasun gutxi gora behera 120,9 tona biohondakin sortuko liratekeela (2019an 1.551 biztanle x 77,95 kg/biz/urtean = 120,9 tona/urtean).

Bestalde, hondakin organikoarentzako edukiontziak gehitzeak Asteasuko konpostguneen erabilera murriztea ekarriko duela pentsatzen da. Hori dela eta, Kale Berria eta Ibarrazpiko guneak mantendu eta beste guztiak kentzea proposatu da.

Konpostguneen mantenu lanei dagokienez, gaur egun SM Sistemas Medioambientales enpresa kontratatuta dago mantenu lanak egiteko 2020ko irailak 30era arte. Kontratu honen urteko kostua 15.889,08 € eurokoa (BEZ barne) da. Zehazki, 1.324.09 €/hilean x 12 hilabete = 15.889,08 €.

Hondakin organikoaren bilketa sisteman proposatzen diren aldaketekin Asteasuko konpostguneak 7tik 2ra pasako direnez, egin beharreko mantenu lana asko gutxituko da. Horregatik 2020ko urritik aurrera konpostguneen mantenu lanak udal baliabideen bidez, brigadaren bidez, egitea proposatu da.

Eta azkenik, hondakin organikoa edukiontzietan uzteko poltsa konpostagarriak 2020an zehar herritarrentzako eta sortzaile berezientzako Udalak erostea eta 2021etik aurrera kostu hori Udalak bere gain ez hartzea proposatu da. Horrela, herritarrek arduratu beharko dute poltsa konpostagarriak erostez.

Asteasuko Udaleko Ingurumeneko aholkularitza zerbitzua ematen duen Tolosaldea Garatzeneko Ingurumeneko Teknikariak aurretik txostena eman du.

Proposamena bozketara jarri da, ondorengo emaitza eman delarik:

Aldeko botuak: 7 (Legarra, Ayerza, Alkorta, Txapartegi, Iturbe, Otegui, Gómez)

Kontrako botuak: 0

Abstentzioak: 0



ASTEASUKO UDALA
(GIPUZKOA)

Gauzak horrela, Udalbatzak

HAU ERABAKI DU

LEHENA. Gaur egun Kale Berrian, Ibarrazpi Pasealekuan eta Elizmendi auzoan dauden hondakin organikoaren bilketarako edukiontzi marroiak mantendu eta Obaban, Lamiategin eta Soro Txikin mota honetako edukiontziak gehitzea.

Edukiontziak gehitzeko eskaera Tolosaldeko Mankomunitateari egingo zaio.

BIGARRENA. Hondakin organikoaren kudeaketarako konpostguneetatik Kale Berrikoa eta Ibarrazpi Pasealekukoa mantentzea eta gainontzeko guztiak, hau da, kiroldegikoa, industrigunekoa, Soro Txikikoa, Elizmendi auzokoa eta Lamiategikoa kentzea.

Asteasuko konpostguneak 7tik 2ra pasako direnez, egin beharreko mantenu lana asko gutxituko da. Horregatik 2020ko urritik aurrera konpostguneen mantenu lanak udal baliabideen bidez, brigadaren bidez, egitea.

HIRUGARRENA. Gaur egun Konpostguneen mantenuaz arduratzen den SM Sistemas Medioambientales enpresari 2020ko irailaren 30etan amaitzen den kontratua ez luzatzea.

LAUGARRENA. Herritarrei hondakin organikoaren kudeaketa eta bilketa sisteman emango diren aldaketen berri ematea idatziz eta informazio bilera baten bidez.

LAUGARREN PUNTUA

2020 Aurrekontu Orokorren 4. Kreditu Aldaketa (gehigarria): hasierako onespena.

Kreditu gehigarrien bidezko kreditu aldaketaren 4/2020 zenbakidun espedientea onartzeko proposamena.

Udal honen aurrekontuko kredituak aldatzeko espedientearen berri eman da, kreditu gehigarrien modalitatekoa.

Idazkari-kontuhartzaileak egindako txostena irakurri da. Bertan adierazten da aipatutako espedientea bat datorrela aplikagarria zaion legeriarekin, zehazki 21/2003 Foru Arauak, abenduaren 19koak, Toki Erakundearen Aurrekontuei buruzkoak, 34. artikuluan ezarritakoarekin.

Horrekin bat, Idazkari-Kontuhartzaileak egindako egonkortasunaren eta finantza iraunkortasunaren helburuak eta gastu araua betetzeari buruzko txostena irakurri da.

Ogasuna, Kontu Bereziak eta Administrazio Batzordeak aurretik irizpena eman du.

Proposamena bozketara jarri da, ondorengo emaitza eman delarik:

Aldeko botuak: 7 (Legarra, Ayerza, Alkorta, Txapartegi, Iturbe, Otegui, Gómez)

Kontrako botuak: 0

Abstentzioak: 0

Gauzak horrela, eta espedientean jasota dauden dokumentuak ikusirik Udalbatzarrak,

ERABAKIA HARTU DU

Lehenengoa.- Onartzea Udal honen aurrekontuko kredituak aldatzeko espedientea, kreditu gehigarrien modalitatekoa, proposamenean ageri den partidakako xehetasunarekin, kapitulukako laburpen honen arabera:

KREDITU GEHIGARRIAK

Kapituluak	Izena	Gehikuntzak
2	GASTUAK ONDASUN ARRUNT ETA ZERBITZUETAN	48.315,14
3	FINANTZA GASTUAK	300,00
4	TRANSFERENTZIA ARRUNTAK	26.435,00
6	INBERTSIO ERREALAK	6.000,00
KREDITU GEHIGARRIAK GUZTIRA		81.050,14

FINANTZAKETA

Kapituluak	Izena	Zenbatekoa
4 (SARRERAK)	TRANSFERENTZIA ARRUNTAK	23.150,14
8 (SARRERAK)	FINANTZA AKTIBOAK	57.900,00
GUZTIRA		81.050,14

Bigarrena.- Jendaurrean ikusgai jartzea hamabost egunez, erreklamazioen ondorioetarako. Erreklamaziorik aurkezten ez bada, erabaki hau behin betikotzat joko da.



ASTEASUKO UDALA
(GIPUZKOA)

Espediente honek aurrekontua onartzeko ezarritako gainerako tramiteak jarraitu beharko ditu.

BOSGARREN PUNTUA

2017ko Kontu Orokorra onartzea

Ikusirik 2017.ekitaldiko kontu orokorra prestatua dagoela, besteak beste ondorengo osagaiak izango dituelarik:

- Egoera balantzea
- Galera eta irabazien kontua
- Ekitaldiaren txostena
- Aurrekontuaren likidazio egoera
- Urteko egoera-orrien eranskinak

Erakunde lokaletako aurrekontuak arautzen dituen abenduaren 19ko 21/2003 Foru Arauaren 63. Artikuluak dionaren arabera, jendaurrean jarri beharko da Kontu orokorra hamabost laneguneko epean interesatuek galdapenak, erreparoa eta iradokizunak aurkez ditzaten. Ondoren Udal Batzarrera eramango delarik bere onespenerako.

Ikusirik mahai gainean dauden Kontu Orokorrak, Gipuzkoako Lurralde Historikoko azaroaren 16ko 95/93 Foru Dekretuak, Udal Entitateen Kontabilitate Instrukzio erraztuak onesten duenarekin bat datozela.

Ikusirik Ogasuna, Kontu Bereziak eta Administrazio batzordeak aldeko txostena eman zuela.

Ikusirik iragarkia 2020/05/15eko Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu zela.

Ikusirik jende aurreko epean ez direla erreklamazioak, erreparoa edo oharrak aurkeztu.

Ogasuna, Kontu Bereziak eta Administrazio Batzordeak aurretik irizpena eman du.

Proposamena bozketara jarri da, ondorengo emaitza eman delarik:

Aldeko botuak: 7 (Legarra, Ayerza, Alkorta, Txapartegi, Iturbe, Otegui, Gómez)

Kontrako botuak: 0

Abstentzioak: 0

Beraz, Udalbatzak

ERABAKI DU

LEHENA: 2017. urteko Kontu Orokorra onartzea.

BIGARRENA: 2017ko aurrekontuaren Kontu Orokorra Herri-Kontuen Euskal Epaitegiari bidaltzea, haren arautegian berariaz ezarritakoaren arabera.

SEIGARREN PUNTUA

2018ko Kontu Orokorra onartzea

Ikusirik 2018.ekitaldiko kontu orokorra prestatua dagoela, besteak beste ondorengo osagaiak izango dituelarik:

- Egoera balantzea
- Galera eta irabazien kontua
- Ekitaldiaren txostena
- Aurrekontuaren likidazio egoera
- Urteko egoera-orrien eranskinak

Erakunde lokaletako aurrekontuak arautzen dituen abenduaren 19ko 21/2003 Foru Arauaren 63. Artikulua dionaren arabera, jendaurrean jarri beharko da Kontu orokorra hamabost laneguneko epean interesatuek galdapenak, erreparoa eta iradokizunak aurkez ditzaten. Ondoren Udal Batzarrera eramango delarik bere onespenerako.

Ikusirik mahai gainean dauden Kontu Orokorrak, Gipuzkoako Lurralde Historikoko azaroaren 16ko 95/93 Foru Dekretuak, Udal Entitateen Kontabilitate Instrukzio erraztuak onesten duenarekin bat datozela.

Ikusirik Ogasuna, Kontu Bereziak eta Administrazio batzordeak aldeko txostena eman zuela.

Ikusirik iragarkia 2020/05/15eko Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu zela.

Ikusirik jende aurreko epean ez direla erreklamazioak, erreparoa edo oharrak aurkeztu.

Ogasuna, Kontu Bereziak eta Administrazio Batzordeak aurretik irizpena eman du.



ASTEASUKO UDALA
(GIPUZKOA)

Proposamena bozketara jarri da, ondorengo emaitza eman delarik:

Aldeko botuak: 7 (Legarra, Ayerza, Alkorta, Txapartegi, Iturbe, Otegui, Gómez)

Kontrako botuak: 0

Abstentzioak: 0

Beraz, Udalbatzak

ERABAKI DU

LEHENA: 2018. urteko Kontu Orokorra onartzea.

BIGARRENA: 2018ko aurrekontuaren Kontu Orokorra Herri-Kontuen Euskal Epaitegiari bidaltzea, haren arautegian berariaz ezarritakoaren arabera.

ZAZPIGARREN PUNTUA

Udaleko brigadako kamioneta zaharra SAHARA ELKARTEARI lagatzea: onespena

Alkate andreak hitza hartu du: gai hori gai-zerrendan sartu zen, aurretik informazio batzordeak irizpena eman gabe, izan ere, Tolosaldea Sahararekin elkarteak adierazi du egin duen eskaerak erantzun azkarra behar duela, antolatu behar duen Saharara joateko bidaia laster egingo delako, eta aurretik ibilgailuak eramateko izapideak egin behar dituela.

Gauzak horrela, ez da denborarik egon aurretik gaia informazio-batzordean aztertzeko.

A.F.A.ren 82.3 artikularekin bat, Proposamena bozketara jarri da, ondorengo emaitza eman delarik:

Aldeko botuak: 7 (Legarra, Ayerza, Alkorta, Txapartegi, Iturbe, Otegui, Gómez)

Kontrako botuak: 0

Abstentzioak: 0

Beraz, bozketaren emaitza ikusirik Udalbatzak proposamena gai-zerrendan sartzea berretsi du.

I. "Tolosaldea Sahararekin G.K.E. Elkarte"-k, 2020/09/18an aurkeztutako idazkiaren bidez, Udalari erretiratutako udal-ibilgailu bat lagatzeko eskatu du,

I. Mediante escrito presentado el 18/09/2020 "Tolosaldea Sahararekin G.K.E. Elkarte" ha solicitado la cesión al Ayuntamiento de un vehículo municipal

izan ere, nahiz eta ez erabili, oso erabilgarria izan liteke Saharako errefuxiatuen kanpamenduetan.

II. Elkarte hori Eusko Jaurlaritzaren Elkarteen Erregistroan inskribatuta dago, eta, bere estatutuen 38. artikuluan xedatutakoaren arabera, ez du irabazi-asmorik.

III. Asteasuko Udala ondasun higiezin honen titularra da:

- IVECO 2017 markako ibilgailua, KAMIOI BASKULATZAILEA; matrikula: 9887CGN; seriea eta bastidore-zenbakia: ZCFC358200D210484, udal-brigadari atxikia.

IV. Asteasuko alkateak proposatu du ibilgailu hori doan lagatzea elkarte horri.

V. Ekainaren 13ko 1372/1986 Errege Dekretuaren bidez onartutako Toki Erakundeen Ondasunei buruzko Erregelamenduaren 7. artikulua arabera, *“Se clasificarán como bienes patrimoniales las parcelas sobrantes y los efectos no utilizables”*, eta ez erabiltzekotzat joko dira *“todos aquellos bienes que por su deterioro, depreciación o deficiente Estado de conservación resultaren inaplicables a los servicios municipales o al normal aprovechamiento, atendida su naturaleza y destino, aunque los mismos no hubieren sido dados de baja en el Inventario”*.

Erregelamendu horren 109.2 artikulua honako hau xedatzen du: *“Los bienes inmuebles patrimoniales no podrán*

retirado, que aunque se encuentra en desuso, podría resultar de gran utilidad en campamentos de refugiados situados en el Sahara.

II. Esta asociación se encuentra inscrita en el Registro de Asociaciones de Gobierno Vasco, y según lo dispuesto en el artículo 38 de sus estatutos, no tiene ánimo de lucro.

III. El Ayuntamiento de Asteasu es titular del siguiente bien inmueble:

- Vehículo marca IVECO 2017 CAMIÓN BASCULANTE, matrícula 9887CGN, serie y número de bastidor ZCFC358200D210484, adscrito a la Brigada municipal.

IV. La Alcaldesa de Asteasu ha propuesto que este vehículo sea cedido gratuitamente a la citada asociación.

V. Considerando que con arreglo al artículo 7 del Reglamento de Bienes de las Entidades Locales, aprobado por Real Decreto 1372/1986, de 13 de junio, *“Se clasificarán como bienes patrimoniales las parcelas sobrantes y los efectos no utilizables”*, y se consideran como efectos no utilizables *“todos aquellos bienes que por su deterioro, depreciación o deficiente Estado de conservación resultaren inaplicables a los servicios municipales o al normal aprovechamiento, atendida su naturaleza y destino, aunque los mismos no hubieren sido dados de baja en el Inventario”*.

El artículo 109.2 del citado Reglamento dispone que *“Los bienes inmuebles patrimoniales no podrán cederse*



ASTEASUKO UDALA
(GIPUZKOA)

cederse gratuitamente sino a entidades o instituciones públicas para fines que redunden en beneficio de los habitantes del término municipal, así como a las instituciones privadas de interés público sin ánimo de lucro”.

VI. Honako argudio hauek kontuan hartuta:

- Deskribatutako ibilgailua IAT indarrean gabe dagoela, matxuratuta dagoela, eta udal-brigadak erabili ordez duela gutxi eskuratutako ibilgailu bat erabili duela.
- Ibilgailu hori udal-brigadaren pabiloian gordeta dagoela, dagokion baja izapidetzeko zain dagoela eta desegiteko baimendua dagoenari entregatzeko zain dagoela.
- Ondorioz, ibilgailu hori ezin dela erabili adierazi behar da.
- "Tolosaldea Sahararekin G.K.E. Elkartea" irabazi-asmorik gabeko elkartea dela.

Proposamena bozketara jarri da, ondorengo emaitza eman delarik:

Aldeko botuak: 7 (Legarra, Ayerza, Alkorta, Txapartegi, Iturbe, Otegui, Gómez)

Kontrako botuak: 0

Abstentzioak: 0

Aurreko guztiagatik, eta espedientean dagoen dokumentazioa ikusirik, Udaltzarrak

HAU ERABAKI DU

gratuitamente sino a entidades o instituciones públicas para fines que redunden en beneficio de los habitantes del término municipal, así como a las instituciones privadas de interés público sin ánimo de lucro”.

VI. Considerando los siguientes argumentos:

- Que el vehículo que se ha descrito se encuentra sin ITV en vigor, averiado, y ha sido sustituido para su uso por la Brigada municipal por un vehículo de adquisición reciente.
- Que ese vehículo se encuentra guardado en el pabellón de la Brigada municipal, y está pendiente de tramitar la baja correspondiente y entrega a desguace autorizado.
- Que, en consecuencia, ese vehículo debe declararse efecto no utilizable.
- Que “Tolosaldea Sahararekin G.K.E. Elkartea” es una asociación sin ánimo de lucro.

La propuesta se somete a votación con el siguiente resultado:

Votos a favor: 7 (Legarra, Ayerza, Alkorta, Txapartegi, Iturbe, Otegui, Gómez)

Votos en contra: 0

Abstenciones: 0

Por todo cuanto antecede, y a la vista de la documentación que obra en el expediente, el Pleno del Ayuntamiento,

HA ACORDADO

LEHENENGOA. Honako ondare-ondasun hau ezin dela erabili aintzakotzat hartzea, eta, beraz, Ondasun eta Eskubideen Inbentarioan baja ematea:

- IVECO 2017 markako ibilgailua, KAMIOTI BASKULATZAILEA; matrikula: 9887CGN; seriea eta bastidore-zenbakia: ZCFC358200D210484, udal-brigadari atxikia.

BIGARRENA. Ibilgailu horren jabetza doan lagatzea Tolosaldea Sahararekin G.K.E. Elkarteari.

HIRUGARRENA. Udalbatzako buruari baimena ematea lagapena formalizatzeko dagokion administrazio-agiria emateko.

PRIMERO. Considerar como efecto no utilizable, con la consiguiente baja en el Inventario de Bienes y Derechos, el siguiente bien patrimonial:

- Vehículo marca IVECO 2017 CAMIÓN BASCULANTE, matrícula 9887CGN, serie y número de bastidor ZCFC358200D210484, adscrito a la Brigada municipal.

SEGUNDO. Ceder gratuitamente la propiedad de dicho vehículo a "Tolosaldea Sahararekin G.K.E. Elkartea.

TERCERO. Autorizar a la Presidencia de esta Corporación para otorgar el correspondiente documento administrativo de formalización de la cesión.

ZORTZIGARREN PUNTUA

Erregu eta galderak.

Ez dira aurkeztu.

Eta beste gairik ez dagoenez, Alkate andreak bilera amaitutzat ematen du arratsaldeko 20:17 orduak direnean, nik Idazkariak, bertan jasotakoaren akta hau luzatzen dudalarik.

Asteasun, 2020ko irailaren 29an.

Alkate andrea

Bitarteko Idazkari Kontuhartzailea